



Zarata aztertzen

Gai honekin zerikusia duten arloak

- HIZKUNTZA.
- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.

HELBURUAK

- Zaratak dakartzan ondorioak zehaztea: osasuna, alderdi psikologikoa, jardueretako interferentziak, etab.

MATERIALAK

- ◆ Fitxaren fotokopia.
- ◆ Sonometroa.

Estatu Batuetan Ingurugiroa Babesteko Agentziak (EPA) ondorioztatu duenaren arabera, 40 urtez egunero zarata maila iraunkor bat jasateak behin betiko entzumen galera ekar dezake.

Hona hemen datuak:

| | |
|--------------------|-------------------|
| 75 dezibelio | Egunean 8 orduz |
| 78 dezibelio | Egunean 4 orduz |
| 81 dezibelio | Egunean 2 orduz |
| 84 dezibelio | Egunero ordubetez |

Giro zaratatsuko biziguneetan, gure inguruko gehienak, guztiz frogatu da entzumen aputka-putka galtzeko arriskua. Gogoratu behar da, ezarritako mailak denboraren gainerakoan erabateko

isiltasuna dagoelako balizkoan oinarrituak direla.

Honako jarduera proposatzen dizuegu:

- Guztion artean lanaldi-eredu bat finkatuko duzue, ikastaldearen batez bestekoari dagokiona: zer jarduera egiten duzuen, non, noiz,... Neurtu sonometroaz lanaldi horretan zehar jasaten dituzuen zarata mailak (interesgarria litzateke inguru bakoitzeko sorburu garrantzitsuenak zehaztea. Lortzen dituzuen datuetan oinarrituz, ebatzi zenbat denboraz jasaten dituzuen zarata maila kaltegarri edota arriskutsuak, eta berorien sorburua.
- Ondoko taulako datuak eta 9. orrialdeko termometroa erabiliz, adierazi zarataren eraginpean egoteak entzumen galeraz gain ekar ditzakeen ondorioak.
- Bildu ondorioztapen guztiak txosten batean.

Zarata aztertzen

Non

Zarata eta hots desberdinen zerrenda

| | |
|----------------------|----------------------|
| <input type="text"/> | <input type="text"/> |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> |

Zerk edo nork sortzen ditu hotsak eta zarata?

Zein da toki honetako hots edo zarata nagusia?

| |
|----------------------|
| <input type="text"/> |
| <input type="text"/> |